

The Oxford handbook of evidentiality

ALEXANDRA Y. AIKHENVALD

Oxford: Oxford University Press, 2018, 882 or.¹

Hizkuntza guztiek dituzte hizkuntza-baliabideak hiztunak erabil ditzakeenak ematen ari den informazioaren iturria zein den adierazteko. Denek dituzte era bateko edo besteko bide lexikalak (aditzondoak, izenak, partikulak eta abar) informazioa nondik datorren adierazteko. Munduko hizkuntzen laurdenak, bide horiez gain, markatzaile gramatikalak ere baditu informazio-iturria markatzeko (Aikhenvald 2004b); hau da, aditzarekin batera nahiz aditzaren gunean agertzen diren elementuak. *Ebidentzial* esaten zaie gisa horretako baliabideei, eta *ebidentzialitatea* kategoriari. Hala ere, ez dago erabateko adostasunik ebidentzialitatea definitzean edo zedarritzean. Nolanahi ere, definizio orokor bat emate aldera, ebidentzialitatea esaten zaio hizkuntzan informazio-iturria markatzeko baliatzen diren bitartekoak biltzen dituen kategoriari. Katēgoria finkatzetik beretik hasten dira desadostasunak, ordea. Mota bateko ikuspegiaren arabera, bide lexikalak eta gramatikalak, denak sartzen dira ebidentzialitatean; beste mota bateko ikuspegiaren arabera, berriz, markatzaile gramatikalak bakarrik. Batez ere liburu honen editore Aikhenvalden —eta beste egile batzuen— ustez, informazio-iturria gramatikalki adierazteari bakarrik esan behar litzaioke ebidentzialitatea. Bera da ikuspegi horren defendatzaile sutsua; Squartinik, lan honetako bere artikuluan (14. kapitulua: 277),

¹ Liburu-kritika bukatzen ari nintzela atera da edizio berria, 2024ko lehen hiruhilekoan. Dena dela, 2018ko argitalpena baliatu dut lan hau egiteko, eta lanean zehar aipatzen diren orrialde-zenbakiak edizio horretakoak dira.

Bestalde, eskerrak eman nahi dizkiet Kepa Korta eta Joana Garmendiari, era batera edo bestera emandako laguntzagatik eta izandako pazientziarengatik. Lanak erakunde hauen proiektuen laguntza izan du: Eusko Jaurlaritzaren IT1612-22 proiektuarena eta Espainiako Ministerioaren Zientzia eta Berrikuntzaren PID2019-106078GB-I00/AEI/10.13039/501100011033 proiektuarena.

adierazten duen bezala, Aikhenvald da ikuspegi horren ordezkaria. Beste batzuen arabera (ikus, besteak beste, Narrog 2005, Cornillie 2007, McCready eta Ogata 2007, Squartini 2007 eta Boye 2010), aldiz, ikuspegi murriztegia da hori, terminoaren definiziotik kanpora uzten baititu hala hainbat hizkuntza, nola hizkuntza horietan hitzunaren informazio-iturria adierazteko erabiltzen diren hainbat bitarteko. Badirudi, dena dela, azken urteetan nolabaiteko adostasuna lortu dela, eta bi multzo nagusitan banatzen dira informazio-iturria adierazteari lotutako hizkuntza-baliabideak: elementu ebidentzialak (gramatikalak) eta estrategia ebidentzialak (bide lexikalak).

Ez da aztertzen hasi zaharra ebidentzialitatearen fenomenoak. XX. mendearen hasiera aldera ezarri ziren lehen zimenduak, Boasen (1911) eta Ipar Ameriketako hizkuntza indiarrek aztertu zituzten beste ikertzaile batzuen aipamenarekin (sorreraren berri izateko, ikus, beste batzuen artean, Jacobsen 1986, Aikhenvald 2004a eta Boye 2018). Geroztik, hainbat eratako lanak egin dira. Hasieran deskriptiboak, batez ere gutxi aztertutako hizkuntzen sistema ebidentzialen azalpenak, hizkuntzen gaineko landa-lanetan oinarritutakoak. Geroagoko lanek haien esanahia eta erabilera aztertzen zituzten. Dena den, azken urteetan, horiez gain, asko ugaritu dira eztabaida teorikoak zein kontzeptualak —esaterako, ebidentzialitatearen eta bestelako kategorien arteko harremanen azterketak—; halaber, azterketa formalak. Lan horietan printzipio komunak bilatzeko saioa egin da. Horren erakusgarri da, besteak beste, aztergai dugun eskuliburu mardula. Ez edonork editatutakoa, gainera. Alexandra Y. Aikhenvald ebidentzialitatearen eremuan erreferentzia den ikertzailea dugu, eta lan guztietan ez bada gehienetan aipatzen da, batzuetan bere ikuspegiarekin bat egiteko, besteetan haren ikusmoldearekiko desadostasuna adierazteko. Aurreratu dut lehen, ebidentzialitateari buruzko ikuspegi gramatikalaren sortzaile eta defendatzaile sutsua da, eta munduko hizkuntza askoren gramatikak idatzi eta hainbat sistema ebidentzial aztertu ditu; batez ere Amazonia iparraldeko arawak hizkuntza-familienak eta Hego Ameriketako hizkuntzenak. Lan honen aurretik, badu beste lan monografiko bat (Aikhenvald 2004a) ere argitaratua gai honi berari buruzkoa; monografikoa da hura, editatua hau, askotariko lan asko biltzen dituen. Badu Dixonekin batera argitaratutako beste lan bat ere (Aikhenvald eta Dixon 2003). Horrez gain, noski, beste hainbat artikulua eta liburu-kapitulu ere idatzi ditu; beste batzuen artean, Aikhenvald 2003a, 2004b, 2007, 2015, 2021.

36 kapitulu-artikuluz osatutako lana da hizpide dugun bilduma. Editorearen sarrera moduko lehenbiziko kapituluaren ondoren, lau ataletan banatuta daude gainerako lanak. Laugarrena (16-36 kapituluek osatua) da mardulena, eta, editorearen esanetan, lanaren muina. Munduko hainbat hizkuntzatarako ebidentzialen azterketak biltzen ditu, aukera bat eginda: orain arte gutxi aztertutako hizkuntzei buruzko lanak biltzen ditu, ondo aztertutakoak ekarri gabe. Hain zuzen, bere lan askotan aipatzen du, ebidentzialitatearen irudi osoa osatuko bada, ezinbestekoa dela ahal den hizkuntza gehienetako ebidentzialen azterketak egitea. Mundu guztiko hainbat hizkuntzatarako argazkia erakusten dute zati horretako artikuluek; gehienak deskriptiboak dira, irudi hori osatze aldera. Munduko ia kontinente guztietako hizkuntzak dira aztergai:

- Afrikakoak (Anne Storch, 29. kapitulua).

- Amerikakoak:

- Karibetar hizkuntzak; zehazki, trio eta wayana (Eithne B. Carlin, 16. kapitulua).
- Nambikwara hizkuntzak, Brasil mendebalde-erdialdekoak (David M. Eberhard, 17. kapitulua).

- Tukanoar hizkuntzak, Amazonia ipar-mendebaldekoak (Kristine Stenzel eta Elsa Gomez-Imbert, 18. kapitulua).
- Bora eta witoto hizkuntzak, Amazonia ipar-mendebaldekoak (Katarzyna I. Wojtylak, 19. kapitulua).
- Uto-azteka hizkuntzak (Tim Thornes, 20. kapitulua).
- Algonquiar hizkuntzak, Kanada iparraldekoak (Marie-Odile Junker, Conor M. Quinn eta J. Randolph Valentine, 21. kapitulua).
- Kanada ipar-mendebaldearen barnealdeko gitksan hizkuntza (Tyler Peterson, 22. kapitulua).

- Asiakoak:

- Mongoliar hizkuntzak; familia zabala da, eta Txinaraino hedatzen da (Benjamin Brosig eta Elena Skribnik, 26. kapitulua).
- Tibetar hizkuntzak, batez ere lasha tibetera (Scott DeLancey, 27. kapitulua).
- *Bodic* hizkuntzak; Himalaian zehar, Pakistan iparraldean, India ipar-ekialdean eta Txina hego-mendebaldean hedatzen diren 100 hizkuntza inguruko familia (Gwendolyn Hyslop, 28. kapitulua).
- Bost formosar hizkuntza; Taiwanen hitz egiten dira, eta austronesiar familiakoak dira (Chia-Jung Pan, 31. kapitulua).
- Filipinetako hizkuntzak (Josephine S. Daguman, 32. kapitulua).
- Koreera (Ho-Min Sohn, 33. kapitulua).
- Japoniera (Heiko Narrog eta Wenjiang Yang, 34. kapitulua).

- Eurasiakoak:

- Nakh-daghestandar edo ekialdeko kaukasoar hizkuntza-familia; Errusia hegoaldean, Azerbaijan iparraldean eta Georgiako hizkuntza-komunitate batzuetan hitz egiten dira familia horretako hizkuntzak (Diana Forker, 23. kapitulua).
- Turkiar hizkuntzak; gaur egun Turkiatik hego-mendebaldera, Turkestan ekialdera eta hego-ekialdetik Txinaraino hedatzen dira, eta baita ipar-ekialdera ere, Siberia hego eta iparraldetik barrena ozeano Artikoraino, nahiz iparraldera, Siberia mendebaldetik eta Europa ekialdetik barrena (Lars Johanson, 24. kapitulua).
- Uraldar hizkuntzak; Europan eta Asia Iparraldean hitz egiten dira (Elena Skribnik eta Petar Kehayov, 25. kapitulua).

- Europakoak: erromantzeak (Asier Alcázar, 35. kapitulua).

- Ozeaniakoak: Ginea Berriko hizkuntzak (Hannah Sarvasy, 30. kapitulua).

Laugarren ataleko azken artikulua, eta orobat liburuaren azkena (36.a, Sherman Wilcox eta Barbara Shafferrek idatzitakoa), zeinu-hizkuntzako ebidentzialitateari eta modalitate epistemikoari eskainia da; eta hiru zeinu-hizkuntza aztertzen ditu: Ameriketako zeinu-hizkuntza edo American Sign Language (ASL delakoa), katalaneko zeinu-hizkuntza edo Lengua de Señas Catalana (LSC) eta brasildar zeinu-hizkuntza edo Língua de Sinais Brasileira (Libras). Egileek dioten bezala, zeinu-hizkuntzetako ebidentzialitatearen azterketa oso hastapenetan dago; gutxi aztertu da. Proposatzen dute esanahi ebidentzialak batez ere gramatikalizatutako aurpegi-markatzaileen bidez adierazten direla, eta ez

eskuzko keinuen bidez. Gorrek adierazten omen dute, zeinu-hizkuntzan, aurpegiak informazio gehiago ematen dutela eskuek baino. Egileen arabera, argi dago informazio lexikal gehiena, esandakoa, eskuen bidez adierazten dela, baina zeinu-hizkuntza darabilenaren aurpegiak adierazten du informazio hori interpretatzeko ezinbestekoa den informazio gramatikala. Ebidentzialen kasuan, informazioaren fidagarritasuna edo baliozkotasuna eta keinulariaren esandakoaren ebaluazio epistemikoa hartzen ditu bere baitan. Oso lan interesgarria da, gai berria delako ebidentzialitateari buruzko lanen artean.

Gainerako hiru atalak, berriz, gaika daude banatuta. Lehenbizikoa ebidentzialitatearen adierazpenari, eragin-eremuari eta historiari buruzkoa da, eta zazpi kapitulu-artikulu ditu. Bigarrenak ebidentzialitatea kognizioan, komunikazioan eta gizartean aztertzen du, eta bost artikuluz osatuta dago. Azkenik, hirugarren ataleko hiru artikuluetan ebidentzialitatearen eta informazio-iturriaren arteko harremana dute aztergai egileek, aurrera begirako gaiak eta hurbiltzeak jopuntuan dituztela. Hain zuzen, lanaren azken ataleko kapituluari —egilearentzat muina diren horiei— garrantzirik kendu gabe, lehenbiziko hiruretako gai eta eztabaidetan dakusat lanaren gunea, eta horietako zenbait auzitan jarriko dut arreta liburu-kritika honetan, gai nagusien eta kapitulu bakoitzaren laburpen txikiaren ondoren.

Liburuaren bukaeran, azkenik, erreferentzien zerrenda luzeaz gain, egileen, hizkuntzen eta gaien aurkibideak biltzen dira; oso lagungarriak bilaketa azkarrak egiteko. Azpimarratzeko modukoa da euskara ere aipagai dela lan honetako hizkuntzen artean; bi lanetan aipatzen da, zehazki.

Mardula izaki, gai asko lantzen dira lan honetan, eta askotarikoak. Batzuek lan guztiak ez bada gehienak zeharkatzen dituzte: ebidentzialitatea zer den, zein diren kategoria horri buruz ari garenean erabili beharreko kontzeptu egokiak, ebidentzialitatea aztertzean dauden ikuspegiak, ebidentzialitatearen eta hurbileko kategorien arteko harremana eta abar. Beste batzuk, aldiz, artikulua zehatzetan lantzen dira; besteak beste, hauek: ebidentzialitatearen eta kognizioaren arteko lotura, elementu ebidentzialen jabekuntza, ebidentzialen jatorria, ebidentzialitatea eta hizkuntza-ukipena, ebidentzialitatea zeinu-hizkuntzan eta proposizionala ez den ebidentzialitatea.

1. kapitulu-artikulua, lanaren sarrera, ohi bezala, editoreak berak —hau da, Alexandra Y. Aikhenvaledek— idatzia da. Ebidentzialitatearen azalpen orokorra egiten du, zer den argi azalduz, eta hainbat kontzeptu definitzen ditu, nolabait bere ikuspegiaren oinarriak defendatzeko. Berak argi du: ebidentzialitate gramatikala bakarrik har daiteke ebidentzialitatez, eta hizkuntza batzuk besterik ez dira haren jabe. Hizkuntzek informazio-iturria adierazteko dituzten adierazpide ez-gramatikalak informazio-iturria adierazteko bitartekoak dira, haren ustez, baina ez dira *ebidentzialak*. Hau da, hizkuntza guztietan adieraz liteke informazio-iturria, baina guztiek ez dituzte hizkuntza-elementu ebidentzial gramatikalak. Hainbat eratan adieraz liteke informazio-iturria hizkuntzetan, eta forma gramatikalen sistema itxia ez da horietako bat besterik. Hain zuzen, beste hizkuntza-kategoria batzuekin parekatzen du ebidentzialitatea. Ebidentzialitatea gramatika-kategoria da, haren irudiko; denbora, agintera, aspektua eta abar nola. Agindua mundu errealeko parametroa eta agintera hari dagokion hizkuntza-kategoria da; denbora kontzeptu nozionala (denborari erreferentzia egiteko item lexikoak; adibidez, *atzo*, *gaur* eta *bihar*) eta aldia denbora adierazteko gramatikalizatutako espresio multzo itxia (esaterako, orainaldia, iragana, geroaldia). Bereizketa horren antzera, informazio-iturria mundu errealarari dagokio eta ebidentzialitatea, berriz, hizkuntza-kategoria da (ikus, halaber, Aikhenvald 2007). Hertsia da bere ikuspegi ebidentzialitatearen kategoriari dagokionez —geroago

hartuko dut hizpide ideia hau berriro—. Hain zuzen, ebidentzialitatea gramatikaltzat ez hartzearen arriskuez ohartarazten du. Horiek zehaztuta, ebidentzialitatearen eremua, esanahiak, beste kategorია batzuekin duen harremana, eta ebidentzialitatea komunikazioan eta diskurtsoan aztertzen ditu. Bukaeran, ebidentzialitateari eta harekin lotura duten kontzeptuei dagozkien terminoen glosarioa dakar.

Hiru atalen berri emango dut segidan. Lehenbiziko atala —ebidentzialitatearen adierazpenari, eragin-eremuari eta historiari buruzkoa— sei kapitulu-artikuluk osatzen dute. Lehenbiziko artikulua —bigarren kapitulua (47-63. or.)—, “Ebidentzialak eta pertsonak”, Jackson T.-S. Sunek idatzitakoa da, eta ebidentzialitatearen eta pertsona gramatikalaren arteko harremana aztertzen du; hain zuzen, pertsonaren faktorea aztertzen du ebidentzialitatearen markatze morfosintaktikoan.

Bigarren artikulua (65-84. or.), “Ebidentzialitatea eta beste aditz-kategoria batzuekin dituen harremanak”, Diana Forkerren ekarpena da. Ebidentzialitateak honako aditz-kategoria hauekin duen harremana du aztergai: denbora, aspektua, modalitatea, polaritatea, pertsona-/genero-/numero-komunztadura, modua / hizketa-ekintza mota, perpaus mota, semantikoki mugatutako aditz motak eta aditzean adierazitako beste kategoría batzuk —besteak beste, miratibitatea (*mirativity* ingelesez)—. Argudiatzen du sinkronikoki hainbat eratan, hainbat mailatan elkarreragin dezaketela kategoría horiek ebidentzialitatearekin, eta ezinbestekotzat du formaren maila eta esanahiarena bereiztea. Diakronikoki ere harremana dago askotan ebidentzialitatearen eta beste aditz-kategoría batzuen artean; batez ere, ebidentzialitatearen eta denbora/aspektuaren, modalitatearen eta jokatua izatearen artean. Dena den, lan honetan elkarrekintza sinkronikoetan jartzen du arreta, eta banan-banan aztertzen ditu harremanak.

Björn Wiemerrek idatzia da hirugarren artikulua (4. kapitulua): “Ebidentzialak eta modalitate epistemikoa” (85-108. or.). Ebidentzialitateari buruzko lanetan oso eztabaidatua den gaia da, hain zuzen. Defendatzen du bi nozio-eremuen esanahiaren hedadurak eta bi eremuak nahastea saihesta daitekeela bakar-bakarrik unitate horien esanahiaren azterketan bi gauza bereizten badira: (a) ikuspegi onomasiologikoa eta semasiologikoa eta (b) kodetua/inferitua banaketa. Bi helburu osagarri ditu kapitulu honetan: (1) bi eremuen arteko erlazio nozionala zehaztea eta (2) batetik besterako hedaduren arrazoiak zein diren aztertzea. Garrantzi handia ematen dio fidagarritasunaren nozioari, eta argudiatzen du ezin berdin litekeela, ez modalitate epistemikoarekin, ez ebidentzialitatearekin, nahiz eta lotura duen biekin. Bien bitartekotzat du. Bestalde, argudiatzen du berebat elementu ebidentzialen hedadura epistemikoak elkarrizketa-inplikatura orokortu (*Generalized Conversational Implicature*, GCI) gisa sortzen direla askotan, eta horretan jartzen du arreta.

Laugarren artikulua, “Ebidentzialitate ez-proposizionala” (109-23. or.), Guillaume Jacquesek egin da. Eragin-eremua izen-sintagmetara mugatuta duten markatzaileak ditu aztergai. Hizkuntza askotan agertzen ez diren arren, Ipar Ameriketako ipar-mendebaldeko kostaldeko hizkuntzetan, Amazonasen arroan eta austronesiar hizkuntzen familian nahiko hedatuta daude. Azpimarratzen du ebidentzial sentsorialak direla batik bat.

Victor A. Friedmanek idatzitakoa da bosgarren artikulua (6. kapitulua): “Nondik datoz ebidentzialak?” (124-47. or.). Ebidentzial gramatikalen jatorria aztertzen du, Eurasia kontinentean arreta jarri eta hizkuntzaz hizkuntzako azterketa eginga. Nabarmentzen du ebidentzialak hizkuntza

batetik bestera transmititu —aldaketa gramatikala zein sortze gramatikala direla bide— nahiz zabaldu —mailegutza bidez— egin litezkeela, baina baita kopiatu, kalkatu eta barnetik sortu ere. Berrinterpretatutako lehenaldia, mendeko perpausak eta nominalizazioak ditu ebidentzialen iturri nagusizat.

Lehenbiziko zatiaren azkeneko artikulua, “Ebidentzialitatea eta hizkuntza-ukipena” (148-72. or.), liburuaren editoreak berak idatzia da. Hizkuntza-ukipenean hizkuntza-elementuak hedatzeko dagoen joera du hizpide, ebidentzial gramatikalak aztergai dituela. Hasteko, azaltzen du hizkuntza-ukipenean dauden hizkuntzek antzeko sistema ebidentzialak garatzen dituztela, eta bi eratako eragina izaten dela: hedatze zuzena —markatzaile ebidentzial bat mailegatzea— edo zeharkako hedatzea —forma desberdina izatea, baina esanahi eta erabilera bera—. Nolanahi dela, ebidentzialen sistema sinpletu ere egin omen liteke hizkuntza-ukipenaren eraginez, eta baita erabat galdu ere, hizkuntza handiago baten mehatxupean baldin badago ebidentzialak dituen hizkuntza. Horrez gain, azpimarratzen du ebidentzialen sistema ezaugarri nabarmena izaten dela halakoak dituzten hizkuntzetan, eta beste hizkuntza batek ebidentzialik ez izatea hutsunetzat hartzen dutela hiztunek, hizkuntza horretan ari direnean. Hala, hutsunea forma lexikalak eta bestelakoak erabiliz betetzen saiatzen dira, ebidentzial gramatikalen faltan. Gaizki-uleratuak ere sor litezke, egilearen arabera, askotan hiztunak eurak konturatu gabe. Berebat nabarmentzen du hizkuntza-ukipen sakona dagoenean eta hizkuntza zaharkitzen denean, balitekeela ebidentzialak markatzaile epistemiko gisa berrinterpretatzea. Azkenik, ondorioetan azpimarratzen du arrazoi hauek daudela ebidentzialak hizkuntza-ukipenaren eraginez indar handiagoz hedatzearen atzean: ebidentzialek komunikazio eraginkorrerako duten garrantzia eta giza jokabidean duten eragina, eta argiak izateko baldintza.

Lanaren bigarren zatiak ebidentzialitateak kognizioan, komunikazioan eta gizartean duen lekuan jartzen du begia. Lehenbiziko artikulua (8. kapitulua), Ercenur Ünal eta Anna Papafragouk idatzitakoa da: “Ebidentzialak, informazio-iturriak eta kognizioa” (175-84. or.). Hizkuntzaren eta kognizioaren arteko harremana aztertzen dute, ebidentzialitatean arreta jarrita, eta harremanari buruzko eztabaidako bi ikuspegiak aztertzen dituzte. Bi ikuspegiak dakusate lotura estua hizkuntzaren eta pentsamenduaren artean, baina noranzkoan dago aldea: bataren arabera, hizkuntzek mundua irudikatzeke dituzten moduek eragina dute errepresentazio kontzeptualen eskuragarritasunean; bestearen arabera, aldiz, unibertsalki partekatutako errepresentazio kontzeptualak islatzen ditu hizkuntzak, haiek aldatu gabe. Hain zuzen, ondorioztatzen dute bigarrenaren aldeko emaitzak erakusten dituztela esperimenduek: hizkuntzak ez du kognizioa aldatzen. Azterketen emaitzen arabera, ebidentzialen sistema gramatikala duten hizkuntzetako hiztunek (helduek zein haurrek) ez dute hobeto prozesatzen informazio-iturria. Hiztunek askotan ez dute gogoan gordetzen informazio-iturria, eta badirudi ebidentzialak dituzten hizkuntzetan ere gauza bera gertatzen dela; alegia, informazio-iturria hizkuntzan markatuta egoteak ez du laguntzen informazio zati bat iturri jakin bati egozteko prozesuan (*source monitoring* delakoan). Hainbat esperimenteren berri ematen dute.

Bigarren artikulua, “Ebidentzialitatearen jabekuntza” (185-201. or.), Stanka A. Fitnevaren ekarpena da. Hasteko, gaiari buruzko lanen errepaso egiten du, eta hainbat metodoen berri ematen, bakoitzaren abantailak eta oztopoak zehaztuta. Azterketetatik ondorioztatzen da haurrek lehenago eurenganutzen dituztela ebidentzial zuzenak zeharkakoak baino. Besteak beste, gogoaren teoria aipatzen du horren azalpen gisa. Nolanahi ere, nabarmentzen du ebidentzialen azterketaren ildo hau oso hastapenetan dagoela, eta hainbat azterbide proposatzen ditu.

Hirugarren artikulua (10. kapitulua) Janis B. Nuckollsen lana da, “Pastaza kitxuako ebidentzialitatearen interakzio- eta kultura-pragmatika” (202-21. or.). Ekuadorko Amazoniako Pastaza kitxuako bi ebidentzial enklitikoren (-*mi* eta -*shiren*) interaziozko eragin edo efektuak eta pragmatikoak aztertzen ditu. Hizkuntza horretako hiztunentzat ezagutza gai kultural hauei lotuta dago: jendeak nola ulertzen dituen elkarren arteko harremanak eta euren eta natura ez-gizatiarraren arteko harremanak. Ezagutzatzer zer har daitekeen baieesteko ez du hain garrantzitsutzat ebidentzia/esperientzia zuzenaren eta zeharkakoaren arteko bereizketa, sistema ebidentzialen behin betiko osagaitzat jotzen dena askotan.² Kontraste hori ez du egokitzen sistema ebidentzialak aztertzeko, asuntzio bat dakarrela eta: ezagutza zentzumen-esperientzien bidez gauzatzen dela eta gogoia sentipenentzako prozesatze-mekanismoa dela, batez ere. Egilearen ustez, arazoak dakartza horrek, bazter uzten duelako giza ezagutzarako ezinbestekoa den aldazio kultural eta psikologikoa. Horren ordez, ebidentzialak ezagutza subjektiboaren iturria kodetuko balute bezala hartzea proposatzen du, argituz Amazoniako kitxuar kulturen lehentasun moral eta estetikoa dagoela baieztatzen zein ikuspegitik egin den artikulatzeko. Elkarri lotutako bi helburu ditu lanean. 1. Hizkuntza-pragmatikako kontzeptuak erabiliz argitzea Pastaza kitxuako ebidentzialak erabiltzeak inplikatura sorta bat sortzen duela, eta, inferentziak sortzeak egitura kultural bereizgarriak kontuan hartzen ditueneguz, egitura horien alderdi garrantzitsuak identifikatzen dituela. 2. Zehaztea aztergai duen hizkuntzan nola bereizi ebidentzialitatea modalitate epistemikotik. Inplikaturak sortzean intonazioak duen balizko zeregina aipatzen du. Azken batean, kategoria deiktikotzat du ebidentzialitatea, eta hiztunaren ikuspegiaren arabera aldatzen da.

Hurrengo artikulua (11. kapituluak) ere, “Kitxuako diskurtso narratiboaren ebidentzia eta ebidentzialitatea” lanak (222-57. or.), kitxuako ebidentzialitatea du aztergai, zehazki diskurtso narratiboarena, eta Rosaleen Howardek idatzia da. Kitxuan testuinguru narratiboan ebidentzialitateak nola jokatu duen aztertzen du, Peru erdialdeko mendialdean hitz egiten den hizkuntzaren aldaera batean arreta jarrita. Huamalíes kitxuan, kontakizunaren egoerari lotutako hainbat faktorearen arabera —narratzailea zein den, non bizi den, zein saretako kide den eta zein kezka sozial dituen—, aldatu egiten da iturria eta ezagutza gramatikalki markatzea, eta baita ebidentzia adierazteko modu diskurtsiboak ere; eragin handia dute istorioa kontatzeko eran. Batetik, bizitako esperientzian oinarritzen dira narratzaileak eta, bestetik, ezagutza eta baliozkotasuna baieztatzea gramatikalki adierazten dira, ebidentzialaren, modalitate epistemikoaren eta denbora-atzizkien bidez. Aztergai dituen hiru elementu horien arteko lotura aztertzen du, grabatutako hainbat narrazio aztertuta, zein zeinekin eta noiz agertzen den ikusita. Besteak beste, ondorioztatzen du pragmatikaren ikuspegiari erreparatu behar zaiola, eta ez dela generoaren kontzeptua baliatu behar elementu horien erabilera aztertzean, tentagarria izanagatik, ez delako baliagarria. Izan ere, istorioaren edukiak narratzailearengan sortzen dituen lotura kognitiboak, psikologikoak eta emozionalak esplikatzeke lekuaren, denboraren eta identitate pertsonalaren parametroek eragina dute ebidentzialitatean eta denboran, Huamalíes kitxuako diskurtso narratiboetan.

Bigarren zatiko azken artikulua, 12. kapitulua, Michael Wooden lana da, “Estereotipoak eta ebidentzialitatea” (243-57. or.). Bi eremuen arteko balizko harremanari buruzko lana da. Estereotipoen eremua mugatuagotzat du; ebidentzialitatearena, berriz, berriago izanik, oraindik ere

² Geroago hartuko dut hizpide berriro bereizketa, liburu-kritikaren bukaera aldera.

erabat zedarritu gabe dagoela azpimarratzen du, beste hainbat lanek bezala. Bi ikuspegi nolabait kontrajarri bereizten ditu estereotipoen dagokienez. Ikuspegi linguistikoaren arabera, estereotipoak sortzea prozesu soziala da, eta estereotipoak malguak dira. Hasierako ikuspegia, aldiz, justu kontrakoa da: estereotipoak esplizituki ez aldatzeko sortu ziren preseski, eta psikologiaren baitako definizio gehienek barneko gogo-egoera pribatuetan jartzen dute arreta. Bi eremuen arteko harremana bideragarritzat dakusa, baina azpimarratzen du ebidentzialitatea ez dagoela oraindik behar bezala landuta eta mugatuta, bide hori irekitzeko. Gainera, adierazten du bide hori urratu duten lanak (Aikhenvald 2003b eta Paz 2009, besteak beste) ebidentzialitate lerratzen direla gehiago, eta estereotipoen ikuspegia zabaldu egiten dutela, aztergai dituzten kulturen errealitatearen eta ohituren berri eman ahal izateko. Zehazten du Aikhenvaldek-eta botereak dituzten gizakietara (xamanetara, esaterako) eta gizatiarrak ez diren zer horietara (heriotzara, arbasoetara eta espiritueta, adibidez) hedatu dutela estereotipoen ideia, eta horrek kognizioari buruzko teoria erabat desberdinak eskatzen dituela.

Hirugarren atala, “Ebidentzialitatea eta informazio-iturriak: beste gai eta ikuspegi batzuk”, dugu laburrena, hiru lanek osatzen baitute, hirurak ere lagungarriak oso ebidentzialitateari lotutako zenbait eztabaida ulertzeko. Kasper Boyek idatzia da lehenbizikoa (13. kapitulua), “Ebidentzialitatea. Nozioa eta terminoa” (261-72. or.). Izenburuak ondo biltzen duen moduan, *ebidentzialitatea* kontzeptu gisa eta termino gisa zer den aztertzen du, eta ebidentzialitateari buruzko eztabaida nagusietako batzuk biltzen ditu. Hasteko, *ebidentzialitatea* terminoaren eta harekin lotura duten beste termino batzuen historiaren berri eman ondoren, ebidentzialitatearen hainbat definizio eta ebidentzialitatea ulertzeko hainbat modu biltzen ditu. Bere ustez, ebidentzialitatea lantzen duten aztertzaile gehienak bat datoz ebidentzialitatea informazio-iturria gramatikalki markatze gisa definitzean, nahiz eta ez dagoen erabateko adostasunik. Hainbat arrazoi ematen ditu horretarako: (i) hainbat aldaera ditu terminoak eta beti ez da definitzen informazio-iturri gisa; (ii) adostasuna izanagatik ere, aldeak daude nozioa ulertzeko eran; (iii) ikertzaile askorentzat ebidentzialitateak ez du informazio-iturria gramatikalki markatzea soilik biltzen, baizik eta baita lexikalki markatzea ere eta (iv) hizkuntzalari guztiek ez dute informazio-iturria linguistikoki markatze gisa bakarrik hartzen ebidentzialitatea. Azpimarratzen du, dena den, ez dagoela auzo duen modalitatearen azterketa-eremuan adinako aldaera terminologikorik. Ebidentzialitatea ulertzeko hiru modu nagusi bereizten ditu: nozio epistemiko gisa, deiktiko gisa eta ezaugarri subjektiboak edo intersubjektiboak izate gisa. Horiez gain, beste bereizketa hauei buruz ere ari da: informazio-iturriaren edukia kodetua ala kodetugabea den, kodetze gramatikala ala lexikala den eta diskurtsiboki bigarren mailakoa ala lehen mailakoa edo nagusia den. Esan daiteke lanaren muina eztabaida hau dela, bereziki: informazio-iturria eta ebidentzialitatea bereizi behar ote diren —besteak beste, Aikhenvaldek (2004a, 2014) proposatzen duen bezala— ala ez —bereziki Wiemerrek (2005) proposatzen duen gisan—. Bereizketak dituen hainbat erronka aipatzen ditu. Aurrerago hartuko ditut berriro hizpide lan honetako eztabaida batzuk.

Bigarren lana (14. kapitulua), “Informazio-iturriari buruzko gramatikaz kanpoko espresioak” (273-85. or.), Mario Squartinik idatzia da. Hain eztabaidatua den ebidentzialitate gramatikaren eta lexikalaren arteko bereizketa lantzen du. Hain zuzen, bide lexikaletan jartzen du arreta, aztertzeko horiek ere sakon arakatzeko ebidentzialitate gramatikak ikertzetik ateratako ondorioei benetan ezer berririk ba ote dakarkien —alegia, ebidentzialitate gramatikalen sistemetatik dakigunarekin alderatuz, beste irudi bat ematen ote duen— edo nozio ebidentzial berak balia ote daitezkeen. Hiru hizkuntza-

baliabide aztertzen ditu: hautemate zuzeneko aditzak —lexikalak dira, baina, ebidentzia zuzeneko espresioak izanik, ebidentzialitateari dagokionez prototipikoak—, itxura-aditzak edo “irudi-aditzak” —horietan, hautemate zuzena hiztunaren ebaluazio subjektibotik iragazten da— eta uste-aditzak —horietan ere hiztunak ebaluazio epistemikoaren eta ebidentzia-iturriaren bitartekari gisa jokatzeko du—. Interesgarria da lana, ebidentzialitatearen eremuan eztabaidagai nagusietakoa dena hizkuntzalaritzaren historian kokatzen baitu; hain zuzen, ikuspegi estrukturalistaren eta funtzionalaren arteko bereizketan. Jatorrizko ikuspegi estrukturalistak erabat bereizten zituen lexikoa eta gramatika; ikuspegi funtzionala izatearen ondorio erabakigarria da, berriz, egilearen arabera, ebidentzialitatea gramatikaren eremu zurrunik zabaltzea. Hasteko, izenburuko “gramatikaz kanpokoak” adjektiboari tiraka, gramatikaren eta gramatikatik kanpokoaren arteko bereizketa dakar, garbi utziz muga ez dela erabat argia. Zehazten du, muga garbia dagoela onartuta ere, benetako arazoa dela ebidentzialitateak hura gurutzatzen duen ala ez; hots, *ebidentzialitate* terminoak gramatika bakarrik biltzen duen ala fenomeno lexikalek ere heda ote litekeen. Muga dagoela zalantzan jartzen duten kasu batzuk aipatzen ditu; besteak beste, informazio-iturria eta ezagutzamoduak adierazten dituzten aditzak (ingelesezko *say* ‘esan’ nahiz *see* ‘ikusi’ modukoak). Azken batean, ondorioztatzen du informazio-iturriari dagozkion espresio lexikalak gramatika ebidentzialaren gunearekin aldera daitezkeela, eta horrek lexikoa eta gramatika hobeto ulertzeko aukera ematen duela.

Margaret Speasek idatzia da hirugarren zatiko hirugarren eta azken kapitulua, 15.a, “Ebidentzialitatea eta semantika formalaren teoriak” (286-311. or.). Egileak berak dioen bezala, semantika formaleko teorien baitan ebidentzialen esanahiak nola bildu beharko lireratekeen azaltzen duten proposamenak berrikusten ditu, oinarri formal txikia dutenek ideia orokor bat izan dezaten. Ebidentzialak aztertzen dituzten semantikari formalen helburua da, hizkuntza jakinetan hizkuntzabaliabide horien esanahia eta erabilera tentuz eta sakon aztertzeaz gain, batean dituzten printzipioak aurkitzea eta hizkuntzen artean zein alde dauden zehaztea, arreta hiru galderatan jarrita. (1) Nola ezaugarritu behar da morfema ebidentzialen esanahi-gunea eta zer informazio mota inferi daiteke horiek testuinguru jakinetan erabiltzetik? (2) Eskuragarri dauden tresnek balio al dute ebidentzialen esanahien berri emateko ala tresna berriak eskatzen dituzten ezaugarri semantikoak dituzte ebidentzialek? (3) Mugatua al da balizko esanahi ebidentzialen multzoa? Eta, hala bada, semantika formalaren teoriak nola muga ditzake balizko esanahiak?

Oinarri batzuk ezarri ondoan, lehenbizi ebidentzialen bereizketa semantiko/pragmatikoari heltzen dio, horretarako baliatu izan diren testak bildu, eta bi multzotan sailkatuta: espresioak esaldiaren egia-baldintzei ekarpenik egiten ote dien neurtzen duten testak —adostasun/desadostasun testa eta delako ebidentziala erabil ote daitekeen hiztunak baiespena egiazkoa/faltsua dela badakienean— eta eragin-eremuari nahiz hainbat perpaus mota zein operatzaileraren baitan txertatzeari dagozkion testak. Speasen arabera, testen emaitzek hizkuntzen arteko hainbat desberdintasun bistaratzen dituzte, baita, kasu batzuetan, hizkuntza beraren baitako ebidentzialen arteko aldeak ere. Testak aplikatzen dituzten ikerketa batzuek iradoki dute ebidentzial batzuk proposizioaren mailakoak direla eta beste batzuk ilokuzio mailakoak. Nolanahi ere, aldea dago hizkuntza bakoitzak zer motatako ebidentzialak dituen, eta baliteke, halaber, hizkuntza berak bi motatako baliabideak izatea (Faller 2003, Matthewson *et al.* 2007, Rullman *et al.* 2008, Waldie *et al.* 2009, McCready 2010, Peterson 2010, Matthewson 2012). Horregatik, ohartarazten du tentuz ibili beharra dagoela ondorioak ateratzean, ez baitago garbi, Matthewsonekin (2011) bat eginda, testek

zer diagnostikatzen duten. Test guztiak hartu behar dira kontuan, eta arretaz aztertu morfemaren esanahia nola dagoen erlazionatuta eragina duen mailarekin.

Segidan, ebidentzialen azterketa semantiko formalen berri ematen du, bereizketa nagusiaren arabera. Batetik, ebidentzialen azterketa egiteko modalen teorian —Kratzerren (1981, 1991, besteak beste) modalen teorian— oinarritzen diren lanak biltzen ditu, Kratzerren beraren teoria azaldu ondoren: Izvorski (1997), Matthewson eta beste (2007) eta Rullman eta kideak (2008), beste batzuen artean. Bestetik, ebidentzialak ilokuzio-indarraren markatzailatzat dituzten proposamenak dakartza (Faller 2002, batez ere), eta baita ebidentzialak diskurtsoan oinarrituta aztertzen dituzten proposamenak ere; zehazki, *not-at-issue* (gunea ez den) eduki gisa aztertzeko proposamenak (Murray 2010, bereziki). Ebidentzialitateaz eta modalitate epistemikoaz dihardu, eta hainbat ikuspegi biltzen ditu. Azkenik, hizkuntza batzuetan ebidentzialitateak aldiarekin eta aspektuarekin duen loturaren berri damaigu, hainbat hizkuntzaren kasua ekarrita. Esaterako, koreerako *-te* morfema ebidentzialaren esanahia, zein aldi-/aspektu-morfemarekin (*-ess*, *-kyess* edo \emptyset) agertzen den, desberdina da: ondorioetan oinarritutako inferentzia, arrazoitzean oinarritutako inferentzia eta zuzena, hurrenez hurren (Lee 2008). Horregatik, ezin da sailkatu ebidentzial “zuzen” edo “zeharkako” gisa. Proposamen horiek, bere ustez, ezabatu egiten dute ebidentzial motak (zuzena, zeharkakoa, inferentziala eta abar) bereizteko beharra. Hain zuzen, lehen aipatu bezala, banaketa hori emantzat jotzen da ebidentzialitateari buruzko orain arteko lan askotan. Gero ekarriko dut hizpidera berriro gaia.

Horiek dira, bada, argitalpen mardul honen baitako lanak. Bakoitzari buruzko laburpena egin eta zertzelada batzuk emanda, horietako askoren atzean dauden eztabaida nagusiak ekarriko ditut hona; aipagarrienak iruditzen zaizkidanak behinik. Horiei buruzko oharra egingo ditut datozen lerroetan.

Hasteko, aipatu beharra dago lan mardul honetako egile askok ebidentzialitatearen ikuspegi hertsia dutela; alegia, ebidentzialak eta informazio-iturria adierazteko bestelako espresioak bereizten dituzte, Aikhenvald editorearen ikuspegiarekin bat eginda. Biak bereiztearen alde egiten dutenek derrigortasuna aipatzen dute: ebidentzial gramatikalak dituzten hizkuntzetan nahitaezkoa da ebidentzialak erabiltzea; hau da, hitzunak nahitaezkoa du, esaldi bakoitzean, informazioa nola eskuratu duen adieraztea. Aikhenvalden arabera (liburuaren 1. kapitulua: 10), tarianan eta haren auzo diren ekialdeko tukanoar hizkuntzetan, ebidentziala ezabatzeak ez gramatikala ez naturala den perpausa sortzea dakar.

Edozein moduz ere, ikuspegi hori zalantzan jartzen dute egile batzuek, hala lan honetan parte hartutakoek, nola beste batzuek. Wiemerrek, esaterako, lehenagoko lan batean (Wiemer 2005) argudiatzen du gramatikalak eta lexikalak, denak, hartu behar direla ebidentzialtzat. Edizio honetako bere lanean (4. kapituluan) ere ildo beretik jarraitzen du, esanez, nahiz eta bereizketa teorikoki erabilgarria den, ez dituela zorrotz bereiziko; hainbat argudio ematen ditu horretarako. Boyek bilduma honetan (13. kapituluan) dioen bezala, batetik, ebidentziala nahitaezkoa izatea ezin da irizpide izan, bai baitira gramatikalak izanagatik nahitaezkoak ez diren hizkuntza-elementuak; hala nola inuktitut hizkuntzako atzizkiak. Gurera etorrira, esan beharra dago gauza bera gertatzen dela euskarazko partikulekin ere. Partikulak izanik, gramatikaltzat har litezke, baina ez dira halabeharrezkoak, hitzunaren aukera baita erabiltzea ala ez. Egile batzuk haratago joaten dira oraindik; McCready eta

Ogatak (2007: 152), esate baterako, zalantzan jartzen dute ebidentzialak nahitaezkoak izatea bera. Euren ustez, nahiz eta ebidentzialak dituzten hizkuntzetako hiztunek nahiago duten elementu horiek erabili, ez da ia inoiz —eta, apika, ezta behin ere— ezinbestekoa. Kitxuaren adibidea dakarte: nahitaezko ebidentzialak dituzten hizkuntzen adibidetzat eman izan da, baina ohartarazten dute Fallerrek (2002) garbi erakusten duela hiztunek zilegitzat dutela ebidentzialak ez erabiltzea. Bestetik, multzo itxia izatea ere ezin har liteke irizpidetzat Boyeren ustez. Ingeleseko *-ly* atzizkia duten adberbioak dakartza adibide gisa: multzo itxia dira, baina lexikaltzat hartzen dira.

Bi ikuspegi horien tartean, batzuek proposatzen dute (ikus, adibidez, Cornillie 2007 eta Squartini 2007) *continuum*a dagoela informazio-iturria markatzeko espresio gramatikalen eta lexikalen artean. Horrez gain, Boye eta Harderrek (2009) erdibideko proposamena egiten dute, ikuspegi gogorarekin eta *continuum*aren ikuspegiarekin, biekin, bateragarritzat dutena: ebidentzial gramatikalak informazio-iturria adierazteko espresioak dira, diskurtsiboki bigarren mailakoak; espresio lexikalak, berriz, lehen mailakoak dira. Hori horrela, proposamena bateragarritzat dute *continuum*aren ideiarekin nahiz tarteko gune lausoekin, baina, era berean, argudiatzen dute lexikoia eta gramatikaren arteko bereizketa mantentzen duela;³ hala, ebidentzialitatearen eta informazio-iturriaren arteko bereizketa eragiten du.⁴

Esan beharra dago, dena dela, Aikhenvaldek berak ere, 2007ko lan batean, leundu egiten duela pixka bat bere lehengo ikuspegi hertsia edo zurruna; edo aintzakotzat hartzen dituela, behintzat, bere ikuspegiari egindako kritikak, eta erantzuten saiatzen dela. Nolanahi ere den, ebidentzialitatea eta informazio-iturria bereizi beharra aldarrikatzen jarraitzen du. Argudiatzen du *ebidentzial* terminoa egokiagoa dela gramatika-sistema itxientzat, nahitaezko direnentzat, eta *informazio-iturria* bestelako bide ugariarentzat; hau da, besteak beste, denboraren pareko kontzeptuzko kategoriarentzat. Zentzu horretan, ez du egokitzen *ebidentzialitate lexikala* terminoa erabiltzea kontzeptuzko kategoriari erreferentzia egiteko, gaizki-ulertuak sor ditzakeela-eta, bitarteko erabat lexikalak eta azpimota itxiak —ebidentzial gramatikaletatik gertuago daudenak— nahasten dituela iritzita. Hala, hor dirau bereizketak bere azken lanen atzean; baita bilduma honetako lan askoren atzean ere. Horri lotuta, galdera sortzen da: ebidentzialitatearen ikuspegi hertsia hartuta ateratako ondorioak (bilduma honetako lan askotakoak, esaterako) heda daitezke elementu lexikaletara? Squartinik ere, ikusi dugun bezala, antzeko galdera egiten du bere lanean, eta argudiatzen adierazpide lexikalak aztertzeak, horiek hobeto ulertzen ez ezik, ebidentzial gramatikalak ere hobeto ulertzen laguntzen duela. Hortaz, zein ikuspegi hartzen den, baliteke ondorioak era batekoak edo besteak izatea; hori dela eta, garbi izan behar da zein irizpidetan oinarritzen garen azterketa egitean.

Bada eztabaida sortzen duen beste gai bat ere ebidentzialitateari buruzko lanetan: ebidentzialak modal epistemikotzat hartzea. Eta bilduma honetako lan batzuetan ere badu bere lekua. Oro har, bi era nagusitan ulertzen da modalitatea lan horietan: mundu posibleen gainean kuantifikatze gisa —besteak beste, Izvorski (1997) eta Matthewson eta besteren (2007) lanetan bezala— eta

³ Boyek, aztergai dugun laneko bere artikuluan, dioenez, ezinbestekoa da gramatika eta lexikoia ondo bereiztea ebidentzialitatearen eta informazio-iturriaren arteko bereizketa mantendu nahi bada.

⁴ Bada eztabaida honi buruzko lan monografiko bat: *Evidentiality between lexicon and grammar* (Squartini 2007). Bereizketa egitearen onurak eta kalteak eztabaidatzen ditu.

hiztunaren ziurtasun neurria kodetze gisa —beste batzuen artean, Givón (1982), Bybee eta Fleischman (1995), De Haan (1999) edo Aikhenvalden (2004a) eran—.

Izvorskik (1997) eta Matthewson eta bestek (2007), esaterako, modal epistemikotzat dituzte batak bulgarierako eta besteek st'at'imcets hizkuntzetako ebidentzialak. Proposatzen dute hizkuntza horietako ebidentzialak aztertzea oinarri modala mugatzen duen auresuposizio ebidentziala duten modal epistemiko gisa, Kratzerren (1981, 1991) mundu posibleen semantikan oinarrituta. Euren proposamenaren arabera, aztergai dituzten ebidentzialek eduki modalaren ekarpena egiten diote proposizioari —litekeena edo beharrezkoa dela p egiazkoa izatea— eta eduki ebidentziala oinarri modala mugatzen duen auresuposizioa da. Esaterako, $k'a p$ formako esaldi baten bidez hiztunak baiesten du, bere ezagutzaren arabera, balitekeela edo beharrezkoa dela p egiazkoa izatea, eta auresuposatzen du zeharkako inferentziazko ebidentzia duela p rentzat (Matthewson 2011: 335).

Aikhenvaldek garbi egiten du ikuspegi horren kontra, aztergai dugun liburuaren sarreran (14. or.), esanez arrazoirik gabe jotzen dutela emantzat munduko ebidentzialen izaera modala. Argudiatzen du ebidentzialak eta modal epistemikoak bereizi egin behar direla. Guk ere, esaterako, beste lan batean (Korta eta Zubeldia 2014) argudiatu dugu *omen* euskarazko partikula ebidentziala ezin azter litekeela modal gisa, Matthewson eta bestek (2007) proposatzen duten azterketaren arabera, bi arrazoi nagusirengatik. Batetik, *omenen* eduki ebidentziala auresuposiziotzat hartuz gero, ezingo genuke esplicitu *omenek* kanpoko ukazioaren baitan eta komunikazio- eta ezagutzaz-predikatuen baitan izan dezakeen eragin-eremu estua. Har dezagun adibide hau:

- (1) ... badakigu zer gertatzen den komikiekin, ez **omen** direla literatura. (Sinadurarik gabe, *Berria*, 2004-09-01: 37)

Adibide horretan *omenek gertatu* aditzaren baitako eragin-eremu estua du; alegia, (1) esaldia (2) gisa interpretatu behar da, eta ez (2) gisa:

- (2) ... badakigu zer gertatzen den komikiekin, hiztuna ez den besteren batek baieztua dela ez direla literatura.
- (3) Beste norbaitek baieztua da badakigula zer gertatzen den komikiekin, ez direla literatura.

Hain zuzen, azpimarratu izan da, batetik, auresuposizio gisa aztertzeak ezin esplikatu ditzakeela txertatze-kasuak (ikus, besteak beste, McCready eta Ogata 2007: 179). Bestetik, egile askok (ikus, beste batzuen artean, Soames 1989: 573-82, Green 2000: 459-65, Beaver 2001: 14-18 eta Potts 2007: 484) argudiatzen dute auresuposizioak ezabagarriak direla. Aitzitik, *omendun* esaldi baten osagai ebidentziala ezin ezaba daiteke, kontraesana sortzen da ezabatzen saiatuz gero:

- (4) #Euria ari **omen** du, baina inork ez du esan euria ari duela.

Horregatik, ondorioztatzen dugu *omen* ez dela elementu modala, modalitatea Izvorki (1997) eta Matthewson eta kideen (2007) arabera —alegia, mundu posibleen gaineko kuantifikazioaren arabera— ulertuta.

Bestalde, modalitatea ulertu izan da, halaber, hiztunaren ziurtasun neurria edo gradua kodetze gisa. Modalitate epistemikoa aipatu izan da, batez ere, eta nahiz eta denak ez datozen bat definizioarekin (ikus, besteak beste, Narrog 2005), nagusitu den definizioaren arabera, hiztunak berak egindako esaldiak adierazitako proposizioaren egiaren gainean duen jarrera adierazten du modalitate epistemikoak.

Hainbat egilek ondorioztatzen dute eurek aztergai dituzten ebidentzialek ez dutela kodetzen modalitate epistemikoa, ezpada esanahi ebidentziala soilik; besteak beste, ebidentzial hauek: tarahumara uto-aztekar hizkuntzakoak (De Haan 1999), bulgariakoak (Fitneva 2001), nederlanderako *moeten* aditzaren erabilera ebidentzialak (De Haan 2005) eta alemaneko *sollen* aditz modalaren berri emateko erabilerak (Faller 2006a, Schenner 2008). Aikhenthaldek ere, edizio honen sarreran (17. or.), dio hainbat hizkuntzako berri emateko ebidentzialek adierazten dutela hiztunak beste norbaitek kontatu diolako duela duen informazioa. Hauek aipatzen ditu, beste batzuen artean: shipibo-konibo hizkuntzako *-ronki* ebidentzialak ez du ziurtasunik eza edo sinesgarritasun maila txikiagoa adierazten, baizik eta berri emandako informazio hutsa (Valenzuela 2003: 57); hinuq kaukasoar hizkuntzako, tatar turkiar adarreko hizkuntzako eta maaka Nigeria iparraldeko hizkuntzako berri emateko markatzaileek ere ez dute sinesgogortasunaren edo zalantzaren ñabardurarik; ezta kurtöp Bhutango hizkuntzako *=ri* klitikoak (lan honen 28. kapituluan aipatuak) eta ngiyambaa australiar hizkuntzako *-dhan* berri ematekoak ere.

Hizkuntza horietako ebidentzialekin gertatzen den gisan, *omen* ezin har liteke modalitate horrela ulertuta ere. Uste zabaldua da euskal hizkuntzalaritzan berri emateko partikulak, informazio-iturria adierazteaz gain, ziurtasunik eza adierazten duela orobat. Halaxe dio, esaterako, Euskaltzaindiak bere lehen gramatikan (1987koan, besteak beste). Haren arabera, *omen* darabilen hiztunak bi gauza adierazten ditu: esandakoa beste norbaiti entzuna dela eta hiztunak ezin duela ziurtatu egiazkoa den ala ez. Eta biak dira nahitaezkoak. Hortaz, hiztunak ez du erabiliko *omen* ziur badago proposizioa egiazkoa ala faltsua dela, nahiz eta beste bati entzundakoa izan. Berebat, ziurgabetasuna izanagatik, ez du erabiliko partikula, dakarren informazioa beste bati entzuna ez badio.

Nolanahi ere, adibideetara jo eta haiek aztertu bezalaxe ohartzen da bat *omenen* hainbat adibidetan ez dela ziurtasunik ezaren edukirik; aitzitik, askotan hiztuna erabat ziur dago ekarritako proposizioa egiazkoa ala faltsua dela. Ikus, adibidez:

- (5) “Eztabaidan, haserre” agertzen **omen** naiz, azkenik, eta ez noa ukatzera: “agure haserrean” belaunaldikoa naiz eta badugu haserreberik gainezka. (Mitxelena 1974: 9)
- (6) Kirola ez **omen** da politikarekin lotu behar, baina berriz ere, agerian gelditu da harreman estua dutela. (Agirrebengoa, *Berría*, 2022-04-24)

Ziurtasunik eza *omendun* perpausaren esanahiaren parte balitz, ordea, *omendun* esaldi guztiak leukakete esanahi hori. Eta ez da hala. Horregatik proposatzen dugu (Zubeldia 2010, Korta eta Zubeldia 2014) ziurtasunik ezaren edukia elkarrizketa-inplikatura orokortua dela —Griceri (1989 [1975] jarraituz—, eta ez beti bateko esanahia. Ikusi dugu Wiemerrek ere proposamen bera egiten duela bilduma honetako bere lanean (4. kapitulua: 102-105); hau da, ebidentzialen balizko ñabardura epistemikoak elkarrizketa-inplikatura orokortu gisa aztertzea.

Ziurtasunik ezaren edukia *omendun* perpausaren esaldi batetik inferitzen da, orokorrean, bestelako informaziorik edo testuinguru jakinik gogoan izan gabe, kontuan hartuta hiztunak, *omenen* bidez, adierazten duela beste norbaitengandik jasotako informazioaren berri ematen ari dela. Uler liteke *omen* darabilen hiztuna, oro har, urrundu egiten dela ekarritako esaldiaren egiazkotasunetik, nolabaiteko ziurtasunik eza adierazita. Dena den, testuinguruak laguntzen du argitzen, kasuz kasu, halako inplikaturarik sortu den ala ez, eta zer jarrera duen hiztunak jatorrizko esaldiaren edukiari dagokionez; alegia, ziurtasuna edo ziurtasunik eza adierazten duen ala ez, ez baita nahitaezkoa hiztunak proposizioarekiko duen konpromiso neurria inplikatzeari.

Wiemerrek ere dio, bilduma honetako bere artikuluan (100. or.), Cornillie (2009) eta Cornillie eta besteren (2015) lanetan oinarrituta, fidagarritasuna edo sinesgarritasuna —esan nahi baita, hiztunak bere epaitzea oinarritzen duen iturriaren sinesgarritasunaren ebaluazioa— ebidentzialitatearen eta modalitate epistemikoaren arteko bitartekaria dela, bien arteko harremana dena delakoa izanda ere, sinesgarritasuna dela bitartekoa; edozein moduz ere, ezin da ez batarekin, ez bestearekin berdindu. Aikhenthaldek ere (ale hau: 17) garbi uzten du, Matthewsoni (2015) kritika eginda,⁵ informazioaren fidagarritasuna ez dela ebidentzialak definitzen dituen ezaugarria, ezpada sistema batzuetako ebidentzial batzuen ezaugarria besterik ez.

Eztabaida horri lotuta, aipatu beharra dago ebidentzialei buruzko lan batzuek —seguru asko, Matthewson eta besteren (2007) ikuspegiarekin bat egitearen ondorioz— hizkuntza-elementu batek proposizio-edukiari ekarpena egitea eta elementu hori modala izatea berdintzen dituztela. Petersonek (2009: 221), esaterako, dio bi hipotesi nagusi daudela teorikoki: hizkuntza batzuetan ebidentzialak modal epistemiko mota jakin bat dira eta proposizio-edukiari ekarpena egiten diote; beste hizkuntza batzuetan, berriz, ebidentzialitatea adierazteko baliabideak operatzaile pragmatikoak dira, ez diete ekarpenik egiten egia-baldintzei. Halaxe ikusten da liburu honetako lan batzuetan ere. Ikus, adibidez, Forkerren aipu hau:

Horrek esan nahi du ebidentzial hauek ez dutela lotuta doazen proposizioa ahultzen. Halako ebidentziala duen proposizioaren baiespena ebidentzialik gabeko proposizio beraren baiespenarekin berdintzen da egia-/proposizio-edukiari dagokionez. Aitzitik, modalek ahuldu egiten dituzte baiespenak, inplikatzeko dute modalizatu gabeko baiespena ez litzatekeela zorionekoa; hau da, *Peterrek igerilari ona izan behar du* esatea baiespen ahulagoa da *Peter igerilari ona da* esatea baino.

Hala ere, badira ebidentzialen adibide gutxi batzuk justu kontrako eran jokatzeko dutenak; adibidez, *st'át'imcseteko inferentziala (11b)* eta *gitskaneko berri emateko ebidentziala* (Peterson 2010). Ondorioz, ebidentzial horiek modal gisa aztertu izan dira. (Forker, ale hau, 3. kapituluak: 73)⁶

⁵ Matthewsonen (2015) arabera, ebidentzialen esanahiak ebidentziaren indarra edo fidagarritasuna/sinesgarritasuna kodetzen du ebidentzia motaz eta ebidentziaren kokapenez gain —kokapena honi dagokio: hiztuna gertaeraren lekuko izan den ala ondorioak bakarrik ikusi dituen—.

⁶ [This means that these evidentials do not weaken the proposition they attach to. An assertion of a proposition with such an evidential equals the assertion of the same proposition without the evidential with respect to the truth-propositional content. In contrast, modals weaken assertions in the sense that they imply that the unmodalized assertion would not be felicitous, i.e. saying Peter must be a good swimmer is a weaker assertion than saying Peter is a good swimmer.]

Oso zabaldua dagoen ikuspegia delakoan nago. Uste nahiko orokortua da hizkuntzetako ebidentzialek ez diotela ekarpenik egiten proposizio-edukiari. Antzerakoa baieztatzen du Aikhenvaldek lan honetan bertan (50. or.), Donabédianen (2001: 432) aipuaren bidez: “Ebidentzialak ez dio eragiten esaldi baten egia-balioari”.⁷ Aitzitik, ezin egin liteke halako parekatzerik. Fallerrek (2006b) ere ohartarazpen bera egiten du: ez dela baliozko orokortzea esatea ebidentzialitatea, kontzeptu semantiko gisa, hizketa-ekintzen mailari dagokiola eta modalitate epistemikoa, berriz, proposiziozko mailari, badirela-eta gurutzatzeak hizkuntza batzuetan. Hain zuzen, hainbat egilek ondorioztatzen dute baietz, aztergai dituzten elementu ebidentzial batzuek ekarpena egiten dietela esaldiaren egia-baldintzei; besteak beste, japonierako ebidentzialek (McCready eta Ogata 2007), grezierako *taha* markatzaileak (Ifantidou 2001), alemaneko *sollen* ‘behar izan’ aditz modalak berri emateko erabileran (Faller 2006a, Schenner 2008), eta ingeleseko adberbio ebidentzialek (*evidently*, *clearly* ‘argi eta garbi’) eta zurrumurru-adberbioek (*allegedly* ‘ustez’, *reportedly* ‘diotenez’) (Ifantidou-Trouki 1993). Halaxe argudiatzen dugu guk ere, *omen* berri emateko partikula ebidentzialak⁸ proposizio-edukiari ekarpena egiten diola: desberdinak dira *omendun* esaldi baten eta *omenik* gabeko haren parekoaren egia-baldintzak. Har ditzagun, esaterako, bi esaldi simple hauek, Haitzek eginak:

(7) Lainotuta dago Urbasa. (*p*)

(8) Lainotuta omen dago Urbasa. (*p_{omen}*)

(7) esaldia egiazkoa da baldin eta bakarrik baldin egia bada lainotuta dagoela Urbasa Haitzek esaldia egin duen unean. (8), berriz, egiazkoa da baldin eta bakarrik baldin Haitz ez den besteren batek esana bada lainotuta dagoela Urbasa. Horrek biltzen du Haitzek esan lezakeela (8) Urbasa lainotuta dagoela uste izanagatik, baina baita hala ez uste izanagatik ere, edo ziur egonagatik garbi-garbi eta eguzkitsu dagoela. Hiztunak *omendun* esaldiaren bidez adierazten duen gauza bakarra da beste batek esana dela *p*. Hala, horrekin du bere konpromiso bakarra: lainotuta dagoela beste batek esan izanarekin, eta ez lainotuta egotearekin. Horixe bera dio Speasek bilduma honetako bere lanean (302. or.), kitxua aipagai duela, AnderBoisen (2014) hitzak ekarrita: hiztunak *pren* berri emate bat egotearekin duela diskurtso-konpromiso bakarra.

However, there are also a few examples of evidentials that behave in the opposite way, e.g. the inferential in St’át’imcets (11b) and the reportative evidential in Gitskan (Peterson 2010). Consequently, these evidentials have been analysed as modals.]

⁷ [The truth value of an utterance is not affected by an evidential.]

⁸ Esan gabe doa Aikhenvaldek ez lukeela ebidentzialtzat joko *omen*, partikula izaki. Partikulak informazio-iturria adierazteko bitartekotzat ditu, baina ez ebidentzialitatearen baitakotzat (ikus lan honen 4-5. orrialdeak), nahiz eta 2007ko lan batean (223. or.) beste baliabide batzuk baino askoz gertuagokotzat dituen ebidentzial gramatikaletatik. Nolanahi ere, ebidentzialitatearen ikuspegi zabalarekin egiten dugu bat gure lanetan, eta ebidentzialtzat dugu *omen*.

Hortaz, hainbat hizkuntzako —tartean euskarazko— berri ematekoen azterketen ondorioek erakusten dute hizkuntza-baliabide horiek ekarpena egiten diotela proposizio-edukiari,⁹ baina, hala ere, ez dira modalak. Beraz, baliteke, proposizio-edukiari ekarpena eginagatik eta ilokuzio-indarraren adierazlea izan gabe, elementu bat modala ez izatea. Badirudi Fallerrek (2006a: 1-2) ere ikuspegi bera duela; alegia, ez dituela biak berdintzen. Izan ere, batetik, dio alemaneko *sollen* aditzak proposizio-edukiari ekarpena egiten diola eta, bestetik, ez duela nahitaez modalitate epistemikoa adierazten.

Speasek ere onartzen du, ale honetako bere lanean, lehen aurreratu bezala, kontua ez dagoela hain argi, eta hizkuntzetan aldea dagoela ebidentzialek zein mailatan eragiten duten, proposizioaren mailan ala maila ilokutiboan: hizkuntza batzuek bi mailatan eragiten duten ebidentzialak dituzte. Esate baterako, gitksan hizkuntzako (Columbia Britaniarraren ipar-mendebaldean hitz egiten den hizkuntzako) ebidentzialen sistemako =*ima* morfemak proposizio-edukiari egiten dio ekarpena eta *ñakw*, aldiz, ilokuzio-indarraren adierazlea da (Peterson 2009). Cuzko kitxuan ere, Fallerren (2003) arabera, bietariko baliabideak daude: enklitiko ebidentzialak (*-mi*, *-shi* eta *-chá*) ilokuzio-indarraren adierazleak dira; *-sqa* iraganaldiko atzizkiak —interpretazio ebidentzialak sortzen ditu—, berriz, egia-baldintzei egiten die ekarpena. Halaxe gertatzen da gure kasuan ere: euskarazko *omen* partikulak proposizio-edukiari egiten dio ekarpena, gure azterketen emaitzen arabera, oraindik orain zehaztu bezala; *bide* partikula, ostera, ilokuzio-indarraren adierazlea da (Korta eta Zubeldia 2016, 2022). Speasen lana laburbiltzean esan bezala, hainbat test daude ebidentzial bakoitzak zer mailatan eragiten duen ondorioztatzen laguntzeko. Nolanahi ere, geroxeago dio ikertzaile batzuk ohartu direla berri emateko ebidentzialek ematen dituztela argudio sendoenak proposiziotik kanpoko eragin-eremua hartzen duten ebidentzialentzat. Hain justu, oraintsu esan bezala, *omenen* kasuan ez da hala, eta berri emateko partikula da.

Speasen irudiko (300. or.), sinpletasunarengatik dago joera ebidentzial modalen eta ilokuziozko ebidentzialen arteko bereizketa horrela deskribatzeko, baina nago ez dagoela sinpletasuna (bakarrik) horren atzean, lehen ekarri dugun Forkerren aipua gogoan.

Teorikoki beharbada desiragarria litzateke ebidentzial guztien azalpen bakarra eman ahal izatea, baina urrun gaude horretatik, eta ez dirudi gauzagarria denik ere, jokabide semantiko eta pragmatiko desberdina baitute, eta, kasu batzuetan, baita hizkuntza bereko ebidentzialek ere.

Azterketa formalak —eta azterketa formaletako eztabaidagaiak— izan ditut hizpide objektioetan, eta esan beharra dago urriak direla ikuspegi formaletik egindako lanak bilduma honetan. Lan bakarra dago berariaz formala dena; alegia, berariaz semantika formalaren eta pragmatikaren ikuspegitik egindakoa: Speasena (15. kapitulua). Esan beharra dago, dena den, Speasen artikulua ez dela ebidentzial jakin batzuen gaineko berariazko azterketa formala, baizik eta ebidentzialen azterketa formaletako langai nahiz eztabaidagaien eta arazoan laburpena, ikuspegi orokorra emateko asmoa duena. Lan osoa da, eta azterketa formalen laburpen ona, ikuspegi orokorraren berri izan nahi duenarentzat, ikusmolde gehienak biltzen baititu. Wiemerrek ere egiten

⁹ Badirudi jokaera hori duten elementu ebidentzialen artean bakarrak edo bakarrenetakoak direla, baina ezin bazter litezke horregatik; baliteke, gainera, azterketa gehiago eginez gero, ondorioztatzea hizkuntza gehiagotako hizkuntza-baliabide ebidentzialek ere berdindatzen dutela.

die tokia bere lanean. Nolanahi ere, lan horiez gain, eskertuko ziratekeen azterketa formal gehiago, edo haiei buruzko aipamen gehiago, liburuan. Ebidentzialitateari buruzko monografikoa eta bilduma izanda, faltan ematen da lan formal gehiago egotea, gero eta gehiago baitira han eta hemen argitaratzen diren ebidentzialei buruzko ikerketa formalak.

Azterketa formalek leku txikia izatearen arrazoietakoa bat izan liteke lan asko deskriptiboak izatea. Editoreak berak hitzaurrean bertan dioen bezala, lanaren helburuetako bat da oraindik deskribatu gabeko edo gutxi deskribatutako ebidentzialen sistemen berri ematea. Horregatik, lan deskriptibo dezente dago bilduman. Era guztietako aztertzaileak eta azterketak behar ditu, ordea, ebidentzialitatearen eremuak irudi osoa izateko. Hala ere, hainbat lanetan, badira atzean ebidentzialei buruzko eztabaida semantiko eta pragmatikoak, berariaz edo esplizituki ez aztertuagatik, eta nabari da ikuspegi batzuen eta besteen arteko nolabaiteko tentsioa kontzeptuetan, sailkapenetan eta abar. Halaber, azterketa formalek leku txikia izatea izan liteke erabaki kontzientea ere, editorearen ikuspegiaren ondorio, bere lan batzuetan (tartean bilduma honetakoetan) nabari baita ez dituela oso gogoko azterketa formalak, edo azterketa formal batzuetako ikuspegi batzuk behinik behin. Gogoratu, esaterako, batetik, ebidentzialen izaera modala eta, bestetik, fidagarritasuna dela-eta Matthewsoni egindako kritikak, gorago ekarri ditudanak. Semantikari formalak ere kritikatzeko (5-6. or.), ebidentzialitatea eta ebidentzia motak nahasten dituztela iritzita; McCready 2010, Krawczyk 2012 eta Kalsang eta beste 2013 aipatzen ditu.

Auzi horiez gain, ebidentzialei buruzko lanetako kontzeptuak eta terminologia aipatu nahi nituzke. Ez da aztertzen hasi zaharra ebidentzialitatearen kategoria, eta nabari da, oraindik ere, definizioak, mugak, kontzeptuak, nozioak eta abar erabat zehazitu gabe daudela, nahiz eta ez dagoen modalitatearen kategoriarik dagokion adina eztabaida. Boyek, lan honetako bere artikuluan (13. kapitulua: 261), lau ardatzetan zehazten du eztabaida. (1) *Ebidentzial* terminoaren ondoan, beste batzuk ere baliatzen dira eta ebidentzialitatea ez da beti informazio-iturriaren arabera definitzen. (2) Hala definitzen denean ere, aztertzaileek ez dute beti berdindu ulertzen nozioa. (3) Aztertzaile batzuen arabera, ebidentzialitateak ez du informazio-iturriaren markatze gramatikala bakarrik hartzen, ezpada baita lexikala ere. (4) Ez da hizkuntzalari guztien ustea ebidentzialitatea linguistikoki markatutako informazio-iturriari bakarrik dagokiola.

Hala, ebidentzialei buruzko lanetan, askotan agertzen dira halako arazoak, esplizituki —alegia, badira berariaz horiek eztabaidatzeko sortutako lanak— nahiz implizituki —egiten den azterketaren baitan, halabeharrez, harira datorrelako edo beharrezkoa delako, edo aipamena nahita egiten delako—. Halaxe gertatzen da lan honetan ere. Nolanahi ere den, batasun modukoa atzematen da liburuan; esango nuke tentuz zainduta daudela hautuak, eta garbi utzi nahi direla zenbait erabaki. Hala gertatzen da, esaterako, ebidentzialei buruzko lanetan lekua duen eztabaida bati dagokionez. Nahiko ikuspegi argia dute bilduma honetako egileek: ebidentzialitatea ez da nahastu behar ebidentziarekin eta justifikazioarekin. Horretan argia da lanaren editorea, hasiera-hasieratik:

‘Ebidentzial’ak eta ‘ebidentzialitate’ak hizkuntza-kategoria gisa ez du ‘ebidentzia’, hizkera arruntean erabiltzen den bezala, inplikatzeko. (...) Ebidentzialitatearen hizkuntza-nozioa (...) ‘ebidentzia’ren erabilera konbentzionalaren erabat bestelakoa da. Ebidentzialitate linguistikoak ez du batere zerikusirik auzitegian edo argudioan frogatzen ematearekin, edo zer den egiazkoa eta zer ez

adieraztearekin, edo norberaren ustea adieraztearekin. Ebidentzialitateak egiten duen gauza bakarra da informazio-iturria eman. (Aikhenvald, ale hau: 5-6)¹⁰

Hortaz, bere aburuz, ebidentzialitateak ez du zerikusirik ebidentziaren erabilera konbentzionalarekin, informazio-iturria adierazi besterik ez du egiten.

Boyek (ale hau: 364) ere dio, azterketa gehienen arabera, ebidentzialitatea *informazio-iturria* nozioaren ikuspegitik definitzen dela, eta batzuetan beste nozio batzuk baliatzen direla haren lekuan; batik bat, *ebidentzia*, eta gutxiagotan *justifikazio (epistemikoa)*. Nozio horien arteko alde nagusi bat aipatzen du, dena den; hiztunaren konpromisoari dagokiona, hain zuzen. Ebidentziak eta justifikazio (epistemiko)ak ebidentzialki aldatutako proposizioarekiko konpromisoa iradokitzen dute. Proposizio batentzako ebidentzia duzula adierazten baduzu, normalean inplikatzeko duzue, neurri batean, haren egiarekiko ardura hartzen duzula. Informazio-iturriak, berriz, ez du halako konpromisorik iradokitzen; zilegi da proposizioaren egia erabat urruntzea. Nolanahi ere, adierazten du ebidentzialitatearen azterketan bazterrerara uzten direla, askotan, desberdintasun horiek, eta badirudi, haren irudiko, aldea terminologikoa dela batik bat. Edozein moduz ere, nabarmentzen du gai garrantzitsuagoa dela nozio horiek, sakonean, nola ulertu behar diren; ohartaraziz filosofian —epistemologian, zehazki— tradizio handia dagoela justifikazioaz eta ebidentziaz eztabaidatzeko. Epistemologia sozialean (ikus, esaterako, O'Connor eta beste 2024), bereziki, oso eztabaidatua da testigantzan oinarritzeak zenbateraino justifikatzen duen ezagutza.

Horrez gain, fidagarritasuna eta ziurtasuna ez dira nahasi behar esanahi ebidentzialarekin. Ikusi dugu Wiemerrek tartea egiten diola eztabaida horri. Haren ustez (ale hau: 101), nahiz eta sinesgarritasuna ebidentzialitatearekin lotzen den, ezin identifika daiteke harekin —Matthewsonek (2015) eta beste batzuek argudiatzen dutenari kontra eginez—, eta ezta babes epistemikoarekin ere; bien arteko bitartekaria da. Editoreak berak ere argi azpimarratzen du hori, ale honetako Speasen hitzak ekarrita:

Hiztunaren ziurtasun neurria, funtsean, ebidentziaren sinesgarritasunaren arabera da, baina ez ziurtasun neurria ez sinesgarritasuna dago zuzenean kodetuta esanahi ebidentzialaren funtsezko osagai gisa. (...) Ebidentziaren fidagarritasuna pragmatikoki mugatzen da, eta, hortaz, ez dago ebidentzial baten denotazioaren zati gisa zehaztuta. (Speas, ale hau: 311)¹¹

Horri lotuta, esango nuke, zehaztapena eginda, batik bat berri emateko ebidentzialen kasuan, ziurtasun neurria ez dela ebidentziaren sinesgarritasunaren arabera, baizik eta hiztunaren ustez

¹⁰ ['Evidential' and 'evidentiality' as a linguistic category does not imply 'evidence', as used in common parlance. (...) The linguistic notion of evidentiality (...) differs drastically from this conventional usage of 'evidence'. Linguistic evidentiality has nothing to do with providing proof in court or in argument, or indicating what is true and what is not, or indicating one's belief. All evidentiality does is supply the information source.]

¹¹ [... the speaker's level of certainty depends crucially on the reliability of evidence, but neither level of certainty nor reliability is encoded directly as a core part of an evidential meaning. (...) Reliability of evidence is pragmatically determined, and as such is not specified as part of the denotation of an evidential.]

jatorrizko hitzunak duen sinesgarritasunaren arabera. Halaxe dio Wiemerrek ere (lan hau: 100): “norbaiten baiespenaz fidatzen ote garen, neurri batean, pertsona hark, egiten ari den baiezpenaren gaian, duen gaitasunari buruzko gure ezagutzaren edo usteen arabera da”;¹² alegia, zenbateraino den sinesgarria jatorrizko hitzuna guretzat.

Eztabaidekin bukatze aldera, bada aipatzea merezi duen beste bat ere. Ebidentzialitatearen azterketan bada orain arteko lanetan emantzetan-edo jo izan den bereizketa bat: Willettek (1988) ebidentzia zuzena eta zeharkakoa bereizten ditu, eta bereizketa horri jarraitu izan diote lan gehienek. Bilduma honetan ere badira bereizketa horrekin bat egiten duten egileak. Esaterako, Sun (2. kapitulua), Forker (3. kapitulua), Friedman (6. kapitulua), Fitneva (9. kapitulua), DeLancey (27. kapitulua) eta Sarvasy (30. kapitulua).

Haatik, azken urteetako lanetan bereizketa hori gainditzeko beharra adierazi dute hainbat egilek, eta hala ikusten da liburu honetan bertan ere. Ohartarazpena egiten du, esaterako, Aikhenvalek (ale hau: 14): hizkuntza gehieneko egoerak erakusten du biko banaketa erraza baino gauza gehiago dutela ebidentzialen esanahiek; baliteke sistema ebidentzial bateko termino bakoitza semantikoki konplexua izatea. Haren ustean, ebidentzialitateak hainbat parametro semantiko ditu eta ezin murriz daiteke “zuzena” vs “zeharkakoa” aurkakotasun sinplista (xxxiv. or.). Nuckollsek ere (ale hau: 202), aipatu bezala, ez du egokitzen bereizketa sistema ebidentzialak aztertzeko.

Squartinik (ale hau: 280-81) dio badirela baliabide batzuk zuzena vs zeharkakoa ohiko bereizketa gainditzeko edo zeharkatzen dutenak. Esaterako, kitxuako ebidentzial zuzenek ez dute lehen eskuko hautemate sententziala bakarrik adierazten, baizik eta hitzunaren “barne-esperientzia” ere biltzen dute, tartean pentsamenduak eta ezagutza (Aikhenvald 2004a). Iruditzen zaio horrek, beste arrazoi batzuen artean, ebidentzialen beste sailkapen bat babestuko lukeela, non oinarritzko banaketa ez litzatekeen zuzena vs zeharkakoa, ezpada hitzunaren *norbera* vs *beste* —Frawleyren (1992: 412-13) kontzeptuak baliatuta— edo pertsonala vs ez-pertsonala —Plungianen (2010: 29) terminoak erabilita—.

Speasek (ale hau: 305), halaber, bere lanari buruzko laburpenean aipatu duen bezala, ohiko bereizketa gainditzeko duen hizkuntza-baliabide bat dakar, Chung (2005) eta Lee (2008) aipatuta: koreerako *-te* morfema ezin sailka daiteke ebidentzial zuzen edo zeharkako gisa; izan ere, haren esanahia mugatzen da zein aditz-aldirekin (edo zein denbora- edo aspektu-morfemarekin: *-ess*, *-kyess* edo *-or*) agertzen den.

Bilduma honetatik kanpo, Matthewsonek (2011: 350) ere dio *st’át’imcets* Columbia Britaniarreko hizkuntzako *lákwa* ebidentziala ez zaiola egokitzen Willetten biko sailkapenari, ez duela balio harentzat, gertaeraren hautemate zuzena (ikustekoa ez den heinean) eta zeharkako ebidentzia (sententziala den bitartean), biak onartzen dituela eta. Bere arabera, sailkapen tradizionalak bi gai nahasten ditu: hitzunak zein bitarteko (arrazoitzea, zentzumena(k)) erabiltzen duen gertakizunaren ezagutza bereganatzeko eta hitzunak gertakizuna bera (eta ez haren ondorioak edo aurrekariak)

¹² [... whether we give trust to somebody’s assertion depends to a certain extent on our knowledge, or assumptions, about that person’s competence in the matter they are making an assertion about.]

zuzenean hauteman ote duen. Eta, hain zuzen, erakusten du ebidentzial batzuek, *lák7ak* nola, murrizketa bikoitz hori eskatzen dutela ebidentzia-iturrian.

Bukatzeko, aipatu beharra dago azterketa esperimentalek ere badutela beren lekua lan honetan; bi lanetan, zehazki. Batetik, lehenago esan bezala, Fitnevak (9. kapitulu) ebidentzialen jabekuntzari buruzko azterketen berri damaigu; bai behaketen, bai esperimentuen berri. Bestetik, Ünal eta Papafragouk (8. kapitulu) haurrekin eta helduekin egindako hainbat esperimentu dakartzate, hizkuntzaren eta kognizioaren arteko harremana aztertzeko, eta, zehazki, ikusteko ebidentzialen sistema gramatikala duten hizkuntzetako hitzunek hobeto prozesatzen ote duten informazio-iturria. Azken urteetan esperimentuak iritsi dira ebidentzialitatearen azterketara ere, nahiz eta jabekuntzari dagokionez egin diren batik bat, Fitnevak berak azpimarratzen duen bezala, eta gutxiago eztabaida teorikoei dagokienez. Aipatu beharra dago tresna baliagarria direla oso eztabaida teorikoei argi egiteko edo laguntzeko bederen, norberaren intuizioa kontrastatzen laguntzen baitute; orobat corpusen eta behaketa hutsaren bidez lortu ezin den informazioa, edo zenbaitetan horietatik lortzen den informazioa baino zehatzagoa, lortzen laguntzen dute. Behar zuten, beraz, lekua bilduma honetan.

Laburtuz, hortaz, ebidentzialitateari buruzko lan mardula eta askotarikoa da bilduma, ebidentzialitatearen arloan erreferente den egile batek editatutakoa eta arloan erreferente diren beste hainbat egileren ekarpenak biltzen dituena. Munduko hizkuntza asko eta askotako ebidentzialen berri ematen duenez eta hainbat eztabaida biltzen dituenez, baliagarria da oso ebidentzialitatearen berri izan nahi duenarentzat, eta baita gaia ezaguna duenarentzat ere, ezagutza zabaltzeko.

Erreferentziak

- Aikhenvald, Alexandra Y. 2003a. "Evidentiality in typological perspective". In A. Y. Aikhenvald eta R. M. W. Dixon (arg.), *Studies in evidentiality*. Amsterdam: John Benjamins, 1-31.
- Aikhenvald, Alexandra Y. 2003b. "Multilingualism and ethnic stereotypes: The Tariana of Northwest Amazonia". *Language in Society* 32: 1-21.
- Aikhenvald, Alexandra Y. 2004a. *Evidentiality*. Oxford: Oxford University Press.
- Aikhenvald, Alexandra Y. 2004b. "Evidentiality. Problems and challenges". In P. van Sterkenburg (arg.), *Linguistics today – facing a greater challenge*. Amsterdam: John Benjamins, 1-29.
- Aikhenvald, Alexandra Y. 2007. "Information source and evidentiality: what can we conclude?". *Italian Journal of Linguistics* 19 (1): 209-27.
- Aikhenvald, Alexandra Y. 2014. "The grammar of knowledge: a cross-linguistic view of evidentials, and the expression of information source". In A. Y. Aikhenvald eta R. M. W. Dixon (arg.), *The grammar of knowledge*. Oxford: Oxford University Press, 1-51.
- Aikhenvald, Alexandra Y. 2015. "Evidentials: their links with other grammatical categories". *Linguistic Typology* 19: 239-77.
- Aikhenvald, Alexandra Y. 2021. *The web of knowledge. Evidentiality at the cross-roads*. Series 'Brill Research perspectives in linguistics'. Leiden: Brill.

- Aikhenvald, Alexandra Y. eta Robert M. W. Dixon (arg.). 2003. *Studies in evidentiality*. Amsterdam: John Benjamins.
- AnderBois, Scott. 2014. "On the exceptional status of reportative evidentials". In T. Snider, S. D'Antonio eta M. Weigand (arg.), *Proceedings of SALT 24*, 234-54.
- Beaver, David I. 2001. "Presuppositions and how to spot them". In D. Beaver, *Presupposition and assertion in dynamic semantics*. Stanford: CSLI Publications, 7-30.
- Boas, Franz. 1911. *Handbook of American Indian languages*. Washington: Government Printing Office.
- Boye, Kasper. 2010. "Evidence for what? Evidentiality and scope". *STUF, Akademie Verlag* 63-4: 290-307.
- Boye, Kasper. 2018. "The notion and the term". In A. Y. Aikhenvald, *The Oxford Handbook of Evidentiality*. Oxford: Oxford University Press, 261-72.
- Boye, Kasper eta Peter Harder. 2009. "Evidentiality: linguistic categories and grammaticalization". *Functions of Language* 16 (1): 9-43.
- Bybee, Joan eta Suzanne Fleischman (arg.). 1995. *Modality in grammar and discourse*. Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins.
- Chung, Kyung-Sook. 2005. "Space in tense: The interaction of tense, aspect, evidentiality, and speech act in Korean". Doktoretza-tesia, Simon Fraser Unibertsitatea, Vancouver.
- Cornillie, Bert. 2007. "The continuum between lexical and grammatical evidentiality: a functional analysis of Spanish *parecer*". In M. Squartini (arg.), 109-28.
- Cornillie, Bert. 2009. "Evidentiality and epistemic modality: On the close relationship between two different categories". *Functions of Language* 16 (1): 44-62.
- Cornillie, Bert, Juana Marín-Arrese eta Björn Wiemer. 2015. "Evidentiality and the semantics-pragmatics interface (An introduction)". *Belgian Journal of Linguistics* 29 (ale berezia, B. Cornillie eta J. I. Marín-Arrese (arg.), *Evidentiality and the semantics-pragmatics interface*): 1-17.
- De Haan, Ferdinand. 1999. "Evidentiality and epistemic modality: Setting boundaries". *Southwest Journal of Linguistics* 18: 83-101. (Erabilitako bertsioa: <http://www.u.arizona.edu/~fdehaan/papers/SWJL99.pdf>)
- De Haan, Ferdinand. 2005. "Encoding speaker perspective: evidentials". In Z. Frajzyngier, A. Hodges eta D. Rood (arg.), *Linguistic diversity and language theories*. Amsterdam: John Benjamins Publishing Company, 379-97.
- Donabédian, Anaïd. 2001. "Towards a semasiological account of evidentials: an enunciative approach of *-er* in Modern Western Armenian". *Journal of Pragmatics* 33: 421-42.
- Euskaltzaindia. 1987. *Euskal gramatika: Lehen urratsak II*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Faller, Martina. 2002. "Semantics and pragmatics of evidentials in Cuzco Quechua". Doktoretza-tesia, Stanford Unibertsitatea.
- Faller, Martina. 2003. "Propositional- and illocutionary-level evidentiality in Cuzco Quechua". In *Proceedings of SULA 2*. Amherst, MA: GLSA, 19-33.
- Faller, Martina. 2006a. "Evidentiality below and above speech acts". (Zirriborroa; <http://personalpages.manchester.ac.uk/staff/martina.t.faller/documents/Evidentiality.Above.Below.pdf>; argitaragabea.)
- Faller, Martina. 2006b. "Evidentiality and epistemic modality at the semantics/pragmatics interface". Lan argitaragabea.
- Fitneva, Stanka A. 2001. "Epistemic marking and reliability judgements: Evidence from Bulgarian". In P. Dendale eta L. Tasmowski (arg.), *Evidentiality. Journal of Pragmatics* 33: 401-20.

- Frawley, William. 1992. *Linguistic semantics*. Hillsdale, NJ: Lawrence Erlbaum Associates.
- Givón, Talmy. 1982. "Evidentiality and epistemic space". *Studies in Language* 6: 23-49.
- Green, Mitchell S. 2000. "Illocutionary force and semantic content". *Linguistics and Philosophy* 23: 435-73.
- Grice, H. Paul. 1989 [1975]. "Logic and conversation". *Studies in the way of words*, 22-40. Cambridge, MA: Harvard University Press. [Jatorrian hemen argitaratua: *Syntax and semantics*, 3. bol.: 1975, P. Cole eta J. L. Morgan (arg.), *Speech acts*. New York: Academic Press, 41-58.]
- Ifantidou-Trouki, Elly. 1993. "Sentential adverbs and relevance". *Lingua* 90: 69-90.
- Ifantidou, Elly. 2001. *Evidentials and relevance*. Amsterdam: John Benjamins.
- Izvorski, Roumyana. 1997. "The present perfect as an epistemic modal". In A. Lawson (arg.), *Proceedings from Semantics and Linguistic Theory VII*. Ithaca, NY: Cornell University, 222-39.
- Jacobsen, William. 1986. "The heterogeneity of evidentials in Makah". In W. Chafe eta J. Nichols (arg.), *Evidentiality. The linguistic coding of epistemology*. Norwood, New Jersey: Ablex Publishing Corporation (*Advances in Discourse Processes XX*), 3-28.
- Kalsang, J. Garfield, Margaret Speas eta Jill de Villiers. 2013. "Direct evidentials, case, tense and aspect in Tibetan: evidence for a general theory of the semantics of evidentials". *Natural Language and Linguistics Theory* 31: 517-61.
- Korta, Kepa eta Larraitz Zubeldia. 2014. "The contribution of evidentials to utterance content: Evidence from the Basque reportative particle *omen*". *Language* 90-2, 2014ko ekaina: 389-423. <https://doi.org/10.1353/lan.2014.0024>.
- Korta, Kepa eta Larraitz Zubeldia. 2016. "*Bide* partikula: eduki doxastikoa eta ebidentziala". *Gogoa* 15: 11-29.
- Korta, Kepa eta Larraitz Zubeldia. 2022. "Meaning and use of the Basque particle *bide*". In X. Artiagoitia, A. Elordieta eta S. Monforte (arg.), *Discourse Particles. Syntactic, semantic, pragmatic and historical aspects. Linguistik Aktuell/Linguistics Today 276*. Amsterdam: John Benjamins Publishing Company, 209-27.
- Kratzer, Angelika. 1981. "The notional category of modality". In H. J. Eikmeyer eta H. Rieser (arg.), *Words, worlds, and contexts*. Berlin: de Gruyter, 38-74.
- Kratzer, Angelika. 1991. "Modality". In A. von Stechow eta D. Wunderlich (arg.), *Semantics: an international handbook of contemporary research*. Berlin: de Gruyter, 639-50.
- Krawczyk, Elizabeth. 2012. "Inferred propositions and the expression of the evidence relation in natural language: evidentiality in Central Alaskan Yup'ik Eskimo and English". Doktoretzatesia, Georgetown Unibertsitatea.
- Lee, Jungmee. 2008. "The Korean evidential *-te*: a modal analysis". In O. Bonami eta P. Cabredo Hofherr (arg.), *Empirical issues in syntax and semantics 7*, 1-25. http://www.cssp.cnrs.fr/eiss7/index_en.html.
- Matthewson, Lisa. 2011. "On apparently non-modal evidentials". In O. Bonami eta P. Cabredo Hofherr (arg.), *Empirical issues in syntax and semantics 8, Colloque de Syntaxe et Sémantique de Paris*, 333-57. <http://www.cssp.cnrs.fr/eiss8/>.
- Matthewson, Lisa. 2012. "Evidence about evidentials: where fieldwork meets theory". In B. Stolterfoht eta S. Featherston (arg.), *Empirical approaches to linguistic theory (studies in meaning and structure)*. Berlin, New York: De Gruyter Mouton, 85-114.
- Matthewson, Lisa. 2015. "Evidential restrictions on epistemic modals". In L. Alonso-Ovalle eta P. Menendez-Benito (arg.), *Epistemic indefinites*. Oxford: Oxford University Press, 141-60.

- Matthewson, Lisa, Henry Davis eta Hotze Rullmann. 2007. "Evidentials as epistemic modals: Evidence from St'át'imcets". *Linguistic Variation Yearbook* 7: 201-54.
- McCready, Eric. 2010. "Evidential universals". In T. Peterson eta U. Saurland (arg.), *Evidence from evidentials. UBC Working Papers in Linguistics*, 28. bol., 105-27.
- McCready, Eric eta Norry Ogata. 2007. "Evidentiality, modality and probability". *Linguistics and Philosophy* 30: 147-206.
- Murray, Sarah E. 2010. "Evidentiality and the structure of speech acts". Doktoretza-tesia, Rutgers.
- Narrog, Heiko. 2005. "Review of Aikhenvald, 2004, *Evidentiality*". *SKY journal of linguistics* 18: 379-88.
- O'Connor, Cailin, Sanford Goldberg eta Alvin Goldman. 2024. "Social epistemology". E. N. Zalta eta U. Nodelman (arg.), *The Stanford Encyclopedia of Philosophy* (2024ko udako edizioa). <https://plato.stanford.edu/archives/sum2024/entries/epistemology-social/>.
- Paz, Alejandro. 2009. "The circulation of chisme and rumor: gossip, evidentiality, and authority in the perspective of Latino labor migrants in Israel". *Journal of Linguistic Anthropology* 19: 117-43.
- Peterson, Tyler. 2009. "Pragmatic blocking in Gitksan evidential expressions". In A. Schardl, M. Walkow eta M. Abdurrahman (arg.), *Proceedings of the 38th Meeting of the North East Linguistic Society*. Amherst, Mass: GLSA Publications, 219-32.
- Peterson, Tyler. 2010. *Epistemic modality and evidentiality in Gitksan at the semantics-pragmatics interface*. Doktoretza-tesia, British Columbia Unibertsitatea.
- Plungian, Vladimir. 2010. "Types of verbal evidentiality marking: an overview". In G. Diewald eta E. Smirnova (arg.), *Linguistic realization of evidentiality in European languages*. Berlin: Walter de Gruyter, 15-58.
- Potts, Christopher. 2007. "Conventional implicatures, a distinguished class of meaning". In G. Ramchand eta C. Reiss (arg.), *The Oxford handbook of linguistic interfaces*. Oxford: Oxford University Press, 475-501.
- Schenner, Mathias. 2008. "Double face evidentials in German: Reportative *sollen* and *wollen* in embedded contexts". In A. Grønn (arg.), *Proceedings of SuB12*. Oslo: University of Oslo, 552-66.
- Rullmann, Hotze, Lisa Matthewson eta Henry Davis. 2008. "Modals as distributive indefinites". *Natural Language Semantics* 16: 317-57.
- Soames, Scott. 1989. "Presupposition". In D. Gabbay eta F. Guenther (arg.), *Handbook of philosophical logic*. IV. bol. *Topics in the philosophy of language*. Dordrecht: Reidel, 552-616.
- Squartini, Mario (arg.). 2007. *Evidentiality between lexicon and grammar*. *Italian Journal of Linguistics/Rivista di linguisticako ale berezia*, 19-1.
- Valenzuela, Pilar M. 2003. "Evidentiality in Shipibo-Konibo, with a comparative overview of the category in Panoan". In A. Y. Aikhenvald eta R. M. W. Dixon (arg.), *Studies in evidentiality*. Amsterdam eta Philadelphia: John Benjamins, 33-61.
- Waldie, Ryan, Tyler Peterson eta Hotze Rullmann. 2009. "Evidentials as epistemic modals or speech act operators: testing the tests" (*Structure and constituency in languages of the Americas* mintegiko aurkezpenaren eskuorria, 2009ko apirila, Purdue Unibertsitatea).
- Wiemer, Björn. 2005. "Conceptual affinities and diachronic relationships between epistemic, inferential and quotative functions (preliminary observations on lexical markers in Russian, Polish and Lithuanian)". In B. Hansen eta P. Karlík (arg.), *Modality in Slavonic languages. New perspectives*. Munich: Sagner, 107-31.
- Willett, Thomas. 1988. "A cross-linguistic survey of the grammaticization of evidentiality". *Studies in Language* 12: 51-97.

Zubeldia, Larraitz. 2010. *“Omen” partikularen azterketa semantikoa eta pragmatikoa*. Doktoretzatesia, Euskal Herriko Unibertsitatea.

Corpusa

Agirrebengoa, Eñaut. 2022. “Sare sozialek agerian utzi dute agintarien zinismoa”. *Berría*, 2022, apirilak 24, 23. or.

Mitxelena, Koldo. 1974. “(1)” [*Sei idazle plazara* (Begiarmen) liburuari buruzko iritzia]. *Jakin* 14: 8-9.

Sinadurarik gabe. 2004. “Kultura”. *Berría*, 2004, irailak 1.

Larraitz Zubeldia

ILCLI eta Euskal Hizkuntza eta Komunikazioa saila (UPV/EHU)